TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO GARBIGUNETAKO HARRERA ETA ARRETA ZERBITZUEN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea dira ondoren zenbatuko diren hainbat irizpide eta baldintza tekniko, zeinak Andoaingo Aranaztegi eta Tolosako San Blas Garbiguneetako harrera eta arreta zerbitzuaren kontrataziorako oinarriak izango diren.

Zerbitzuak baldintza teknikoen agiri honetako baldintzak bete behar ditu, baita lehiaketa honen zerbitzuaren adjudikazio kontratuako baldintzak ere.

2.- GARBIGUNEKO OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Garbiguneak bereziki egokitutako instalazioak dira. Hauek zabor-bilketa zerbitzu arruntean jasotzen ez diren edo maiztasun txikiago batekin jasotzen diren hainbat hondakinen denboraldi baterako harrera-zerbitzura zuzenduak daude eta errefortzu edo osagarri moduan erabiltzen dira.

San Blaseko garbigunea Tolosako San Blas auzoko gutxi gorabehera 2600m^2ko lursail batean kokatzen da. Andoaingoa, Aranaztegi Poligonoko 3000m^2ko lursail batean kokatzen da. Instalazioa hormigoizko bi plataformek osatzen dute, bata bestea baino jasoagoa dagoelarik. Beheko plataforman edukiera handiko (29m^3) edukiontzi metalikoak daude, mota desberdinetako hondakinak bertan jasotzeko. Gainera, hainbat edukiontzi daude estalpean eta aska batzuen gainean. Hauek etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko dira.

Kontroleko etxola, biltegia eta hondakinen sarrera eta irteerarako pisu bat dute.

Intalazioek argi propioak, saneamendu- eta euri-urak husteko sareak eta edateko uraren hornidura dute. Itxitura moduan, bi orritako ate metalikoak (Tolosako Garbigunean), oinezkoentzako atea eta gidarigun atea (Andoaingo garbigunean) eta perimetro osoan hesi itxitura dute.

Garbigune zerbitzua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008ko abuztuaren 4ean, eta 2008ko irailaren 26ko zuzenketan argitaratutako Erregelamenduak araututa dago.

3.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Oro har, zerbitzuak intalazioen erabilera egokirako eta mantenimendurako beharrezkoak diren lan guztiak barne hartzen ditu, honen xedea berma dadin: hondakinen onarpenaren kontrola, hautaketa eta gordailu egokia, erabiltzaileei informazioa ematea, baita, ezarritako baldintzetan bildutakoa kentzeko eta garraiatzeko eskaera egitea ere.

Honako hauek dira egin beharreko oinarrizko zerbitzuak:

- Mankomunitateak ezartzen duen ordutegian ireki eta ixtea.
- Hondakinen harrera, identifikazioa eta sailkapena, hauen harrera onartuz edo ez, kantitatearen, jatorriaren eta hartaturiko erabiltzaile motaren arabera (partikularra, enpresa, gremioa). Gehienez ere onargarriak ez diren hondakinak debekatuko dira. Gainera, jatorria zehatz-mehatz identifikatuko da, hau da, zeinek eta zein udalerritan entregatzen diren. Honela, hondakinak estatistikoki zenbatu ahal izateko. Harrera ukatzen bada, erabiltzaileari hondakinen kudeaketa egokiaren berri eman beharko zaio. Lizitatzaileek, beren eskeintzetan, jarduteko protokoloa definite beharko dute.
- Erabiltzaileen arreta eta informazioa, behar izanez gero, hondakinen bilketa egokiari buruz orientatuz, aholkatuz eta lagunduz.
- Behar bezala bota direla eta izaera desberdinetako hondakinak ez direla nahastu aztertu eta egiaztatzea, eta, zikinduz gero, erabiltzaileari isurketa eremua garbitzeko eskatzea. Horretarako, esleipendunak erabiltzaileen eskura jarri beharko ditu eremu horiek garbitzeko tresnak. Erantzunkizun horri erantzunez, esleipendunak azken kudeatzaileari emandako materialaren kalitatea bermatu beharko du, tratamentu zentroetan gerta daitezkeen erreusen erantzule izango da eta horiek behar bezala kudeatu arte sortzen diren gastuak bere gain hartuko ditu. Erantzunkizun hori entregatutako hondakin guztiei dagokie.
- Egunero erregistro bat egin, onartu eta sartzen diren bai erabiltzaileena baita ere hondakinena (kantitatea, jatorria eta norakoa).
- Irteera erregistroa egin (kantitatea, datak eta norakoa).
- Onartzen ez diren erabiltzaile eta ibilgailuen sarrera galarazi.
- Etorkizunean hala ezartzen bada, Tolosaldeko Mankomunitatearen konturako tasak kobratzea, erabiltzaile motaren, hondakinaren eta emandako kopuruaren arabera, dagokion ordenantza fiskalak definitzen duenaren arabera.
- Bisitari eta erabiltzaileen segurtasunaz arduratu.
- Garbigunea eta ingurunea garbitu eta mantenu, makineria eta instalazio guztiak ordenatuta eta egoera onean egon daitezen. Lizitatzaileek maiztasunak, bitartekoak eta jarduteko protokoloak zehaztuko dituzte.
- Edukiontzien betetze-maila zaindu. Hustutzea behar den garaian eta hauetan behar den lekua izatea bermatuz.
- Dagokion erakunde kudeatzaileari hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak bidaltzearren, beharrezkoak diren dokumentuak bete eta formalizatu.

- Hondakinak dagokien garraiolariari, berreskuratzaileari, birziklatzaileari edo ezabatze-zentroari garraiatzeko eskatzea. Bidaiak karga osoarekin egingo dira, edukiontzien eta garraiobideen gehieneko edukiera aprobetxatuz. Abisua posta elektroniko bidez emango da garbiguneko ordutegi barruan kasu larrietan izan ezik, horietan abisua telefonoz transmititu ahal izango da.
- Mankomunitateak Ingurumen-hezkuntzako ekintzak burutzen dituenenan, behar izanez gero, laguntzea.
- Mankomunitateko zerbitzu teknikoari edozein gorabehera edo hondakin ukatze jakinaraztea.
- Berrerabilgunearen ardura izatea, bere kasuan.
- Materialen berrerabiltzerako ekintzak sustatzea.
- Konposta sustatzen duten ekintzak eta jardueretan laguntzea. Egituratzailea edo autokonpostagailuak banatzea.
- Ondoko zabortegiaren zuzia piztea. (San Blas garbigunea)

4.- JARDUTEKO IRIZPIDEAK ETA ZERBITZUA EMATEKO MODUA

Enpresa lizitatzaileek proposatutako zerbitzua aurrera eramateko onuragarriena izango den sistema proposatu behar dute.

4.1.- Erabiltzaileak

Tolosaldeako mankomunitateko ondorengo 28 udalerrietako biztanle, denda, bulego, etxeko obra txikien gremio eta lantegi txiki orori zuzendutako zerbitzua da: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Alegia, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Billabona eta Zizurkil.

Salbuespenez, eskualdetik kanpoko erabiltzaileak onar daitezke, Mankomunitateak baimendu ostean. Dena den, erregelamenduan xedatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

4.2.- Garbiguneen ordutegia eta zerbitzua

4.2.1.- Tolosako San Blas garbigunea

San Blas Garbigunearen ordutegia honakoa da:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00 eta 15:00-17:50.
- Larunbata: 9:00-13:30.
- Abuztua: astelehenetik larunbatera 9:00-13:30.

- Igande eta jai-egunak: itxita

Kontratu zerbitzuak jendearen arreta ordutegi berdina izango du.

4.2.2.- Andoaingo Aranaztegiko Garbigunea

Leiotz Garbigunearen ordutegia honakoa da:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00-12:30 eta 16:00-19:00
- Larunbata: 9:00-13:30.
- Abuztua: astelehenetik larunbatera 9:00-13:30.
- Igande eta jai-egunak: itxita

Hala ere, Kontratu zerbitzua ondorengo ordutegian izango da:

- Astelehenetik ostiralera: 16:00-19:00
- Larunbatak: 9:00-13:30

Halaber, adjudikaziodunak **Andoaingo garbigunean** beharrezkoak diren giza baliabideak jarri behar ditu, momentu oro kontratuaren zerbitzuak modu eraginkorrean bermatzeko, garbigune honetan Mankomunitatean gerta daitezkeen giza egoera desberdinak betetzeko; adibidez, gaixotasun- edo istripu baja, lanaldi-laburtzea, baimena, sindikatuko eginkizunak, oporrak eta justifikatutako beste motatako kausak, baita ustekabeko bajak eta absentismoa. Andoaingo garbiguneko baja edo absentzia hauek berehala bete beharko ditu adjudikaziodunak. Hau beharrezkoa den esperientzia eta prestakuntza duten langileek beteko dute.

Dena den, Mankomunitateak edozein garbiguneko hasierako ordutegia alda dezake, zerbitzuaren baldintza eta ezaugarrien arabera, hasierako prezioaren berraztertzea ekarri gabe. Ordutegiaren aldaketak kontratua ekonomikoki aldatzen badu, erabiltzaileei irekiera ordutegiaren handitze edo txikitze baten ondorioz, kontratua aldatuko da Klausula Administratibo Berezien Baldintza Pleguan kontratua aldatzeko ezarritakoari jarraituz.

4.3.- Onartutako hondakinak

Honako hauek dira onartutako hondakinak garbigune batean zein bietan:

- Obra-hondakinak.
- Pladur eta eskaiola.
- Plastiko birziklagarriak: film.
- Plastiko ez-birziklagarriak.
- Tresna handiak: altzariak, koltxoiak,…

- Paper eta kartoia
- Metalak eta txatarra
- Beira laua.
- Inausketa eta lorategiko landare-hondakinak
- Egurra: paletak, kaxak, taulak
- Tailerretakoak ez diren kotxe pneumatikoak (hagunik gabe).
- Ehunak
- Beira ontziak
- Plastikozko ontziak, metalezko ontziak eta brikak
- Etxetresna electrikoak: frigorifikoak, arropa-garbigailuak, ordenagailuak, telebistak
- Etxeko hondakin arriskutsuak: lanpara fluoreszenteak, tonerrak, ontzi metaliko kutsatuak eta plastikozko ontzi kutsatuak, pinturak, espraiak, etab.
- objetu berrerabilgarriak: jostailuak, liburuak, etxetresna elektriko txikiak, dekorazio tresnak,…

Mankomunitateak onartuak diren produktuen zerrenda aldatzeko eskubidea izango du, behar diren eskaera eta beharrenen arabera.

4.4.- Onartutako hondakinen kantitatea eta erabilera

Garbigunearen erabilera ez egokia sahiesteko, Mankomunitateak erabilera-mugak ezartzeko eskubidea izango du, bai kantitatearen araberakoak, baita erabiltzaileen instalazioen erabileraren maiztasunaren ingurukoa ere, hondakin edo ekoizlearen arabera. Zehazki:

- 3500 kilo baino gutxiagoko Baimendutako Pisu Maximoa duten ibilgailuek baino ezin dute hustuketa egin (zerbitzu munizipalak salbu).
- Erabiltzaile bakoitzak, gehienez 2m^3 eta 750 kilo baino ezin ditu hustu astean.

Estimazio gisa, 2020. Urtean kudeatutako hondakinen zerrenda erantsi da I eranskinean.

4.5.- Onartutako hondakinen kudeaketaren barne dauden lanak.

Garbiguneko hondakin kudeaketan ondorengoa dakar:

<u>4.5.1.- Hondakinak onartze eta gordetzea</u>

Hondakinen onarpenak eta gordetzeak ondorengo aspektuan bete behar ditu:

- <u>Onarpen-irizpideak betetzea:</u> Hondakinak onartu baino lehen, erabiltzaile bakoitzak aurkeztu nahi duenaren edukia kontrol postuan adierazi beharko du. Garbigunearen

arduradunak onartu edo errefusatu egingo du, kargaren jatorriaren eta erabiltzailearen arabera.

Hondakina ez bada onartzen, garbigunearen arduradunak erabiltzaileari hondakina ez onartzearen arrazoiak adierazi beharko dizkio. Gainera, kudeaketa egokirako eman behar dituen pausoak adieraziko dizkio eta gertatutakoa erregistratu eta Mankomunitateko zerbitzu teknikoari adieraziko dio.

- Hondakinen gordetzean orientatzea: Garbiguneko arduradunak erabiltzaileak karga uzteko leku eta edukiontzi egokiei buruz orientatu beharko ditu. Gainera, ekintza hauek modu egokian gauzatzen direla zainduko du. Halaber, nahasterik ez dela egon, husketa modu egokian egin dela eta argibide-seinaleak egoera onean daudela aztertuko du.

  Ardura honi erantzunez, adjudikaziodunak bukaerako kudeatzaileari ematen dion materialaren kalitatea bermatu behar du.Tratamendu zentroan sortutako errefusei erantzun emanez eta beharrezko kudeaketa lortu arte sortuko diren gastuak bere eginez.

  Ardura hori entregatutako hondakin guztiekin, eta bereziki, hondakin arriskutsuekin, beteko da.

- Hondakinen hustuketan langileei laguntza: erabiltzaileak material desberdinak aukeratutako edukiontzian hustuko ditu, hauen jatorria kontutan izanda eta modu ordenatu batean. Isuriaren zonaldea garbitu beharko du hondakinen hustuketa prozeduran zinkindu izanez gero. Horreratako, adjudikatzaileak beharrezkoak diren garbiketa tresnak edukiontzien zonaldean instalatuak izango ditu.

  Ahal den heinean, erabiltzaileak eskatuz gero, garbiguneko langileak hustuketa lanetan lagundu beharko du.

- Hondakinen sarrera eta irteera erregistroa: adjudikaziodunak datu kontrola euskarri informatiko batean mantendu beharko du, gutxienezko informazioa honakoa delarik: hondakin mota, kantitatea, jatorria eta entrega-data.

  Halaber, kontrol berdina izango da irteera materialekin, gutxienezko informazioa honakoa delarik: hondakin mota, norakoa eta hondakinaren kudeatzailea, garraiolaria, kantitatea eta irteera data.

  Kontratistak datuen kudeaketan lagunduko du, baita EAEko Ingurumen Administrazioari eskuratzeko hondakin ez arriskutsu eta/edo arriskutsuekin zerikusia

duen informazio transakzio prozesuan ere. Honetarako, Ingurumen Informazioa Integral Kuadeatzeko Sistema "IKS-eeM" erabiliko da, informazioa telematikoki trukatzeko Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa tresna.

4.5.2.- Hondakinen biltegiratzea

Hondakinak dagozkien edukiontzietan utziko dira, hondakinen kudeatzaileak ezarri duenaren arabera.

Edukiontzi bakoitzari egokitutakoaren arabera, hauek beharrezkoa den edukiera dutela behatuko da. Hustuketa gehienez 24 orduko epean egingo da, behin garraio zerbitzua eskatu ondoren, garbiguneko gainontzeko erabiltzaileak kaltetu gabe.

4.5.3.- Materialak berrerabiltzea (Berrerabilgunea)

Garbigunearen helburu garrantzitsuetako bat objetuak berrerabiltzea erreztea da, batez ere, jostailuak, dekorazio elementuak, liburuak, altzari txikiak, tresna elektriko txikiak, etab. Honela, kontratiskatak garbigunean entregatutako tresna eta ondasunal berrerabiltzea hobestuko du, materialaren birziklapenaren alde, egoera onean dauden objetuei bigarren aukera bat emanez. Aipatutako obtejuen hustuketa eta biltegiratzean harreta handia jarriko da, berrerabiltzea kontutan harturik. Hau lortzeko lizitatzaileak ezarritako neurriak positiboki baloratuko dira.

Horretarako, Andoaingo garbigunean pilatze gune bat dago (Berrerabilgunea). Bertan, berrerabil daitezken materialak erabiltzailearen esku daude.

Lizitatzaileek berrerabilguneraen kudeaketa eguneratu eta hobetzeko proposamenak aurkeztu beharko dituzte, beren esperientzian oinarrituta. Proposamen honi lotutako kostua aurkeztutako eskaintza ekonomikoan sartu beharko da, indibidualizatuta.

Tolosaldeko Mankomunitateak eskubidea izango du esleipendunaren proposamenari egoki iruditzen zaizkion aldaketak egin eta sartzeko. Aldaketa horiek derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, baldin eta eskaintza ekonomikoan aurreikusitako kostua handitzen ez badute.

Mankomunitateak doan garbigunetako erabiltzaileek berrerabili nahi dituzten eta berrerabilgunean uzten dituzten materialmen titulartasunari uko egingo dio. Aldi Berean, kasu horietan beraien garraio kostuak ez ditu bere gain onartuko.

4.5.4.- Erakunde kudeatzaileari bidalketa

Behin edukiontziak bete direnean, hondakinak ezarritako kudeatzaileari bidali beharko zaizkio. Horretarako, kontratistak baimendutako kudeatzaileari bidalketa formalizatuko dio. Beraz, lehiaketa honetan ez da kontutan hartuko garbigunean bildutako hondakinen garraio zerbitzua. Tolosaldeko Mankomunitatea izango da hondakinen jabe.

Debekatuta dago ezarritako lekuetan (berreskuratze, birziklatze edo deusezte guneetan) jaso ez den materiala hustea.

4.6.- Txikitutako kimaketaren banaketa

Garbigunearen ekintzaren barne, adjudikaziodunak etxeko konpostajerako txikitutako kimaketaren banaketan lagunduko du. Honako hau mankomunitateko erabiltzaileen artean egingo da, beti ere eskatu izanez gero.

5.- GARBITZE ETA MANTENTZE-LANA

Arreta handiz ibili beharko da garbigunea, intalazioak, edukiontziak eta makinak egoera onean, garbi eta seguru, egon daitezen.

Honako atal hauetan segimendu zorrotz bat egingo da:

- Edukiera handiko edukiontzi gunea: edukiontzi baten hustuketa egiterakoan, zonaldea garbituko da, erori diren hondakinak kenduz.
- Garbiguneko erabiltzaileen gunea: garbiketa egoera ezin hobean egon beharko du. Horretarako hustutako edozein hondakin kendu beharko da, berdin du akats hutsa den, hausturagatik den, zabarkeriagatik den, etab.
- Kontrol eta bilketa gunea: bulegoko eta biltegiko elementu guztiak goera egokian mantenduko dira.
- Berrerabiltze gunea: Andoaingo garbiguneko berrerabilguneko elementu guztiak egoera egokian mantenduko dira.
- Kanpokaldea: garbigunearen kanpokaldea garbi mantenduko da, haizeak ateratako hondakinak baztertuz, etab. Instalazioetako inguruetan gerta daitezkeen isuriak ere kendu beharko dira. Baita ere itxitura perimetralekoak.
- Tolosako garbiguneko Instalazioen oinarrizko mantenua: urtean behin txapa mugikorrak, kartelen oinarriak eta garbiguneko erabiltzaileen ibilgailuen gurpiletarako instalatutako topeak margotuko dira. Mantenimendu lanen barnean esleipendunaren kargura izango da edukiontzi desberdinen identifikazio-seinaleak eta instalazioak ohiz funtzionatzeko beharrezkoak diren informazio-kartelak mantentzea. Seinale horizontalak (pintatuak) ere haren kontura izango dira. Eskaintzaileek, beren

eskeintzetan, mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileetarako kontratatuak dituzten enpresen zerrenda aurkeztuko dute.

6.- LANGILEAK

Adjudikaziodunak momentu oro izango ditu zerbitzua emateko behar diren langileak, Baldintza teknikoen agiri honetan eta aurkeztutako proposamenari jarraiki.

Halaber, zerbitzuaren arduraduna kontratuko aspektu guztietan erabakitzeko gai den pertsona bat iznago da. Pertsona honek Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoarekin harreman zuzena izango du.

Orobat, adjudikaziodunak beharrezkoak diren giza baliabideak jarri behar ditu, momentu oro kontratuaren zerbitzuak modu eraginkorrean bermatzeko, gerta daitezkeen giza egoera desberdinak betetzeko; adibidez, gaixotasun- edo istripu baja, baimenak, sindikatuko eginkizunak, oporrak eta justifikatutako beste motatako kausak, baita ustekabeko bajak eta absentismoa. Kontratistak baja edo absentzia hauek berehala bete beharko ditu, beti ere kontutan izanik garbigunea irikita dagoen bitartean, langileak bertan egon behar dutela.

Aurrekoa kontutan hartuz, lizitatzaileek proposamenean beharrezkoak diren langileen zenbatekoaren aurreikuspen bat aurkeztu behar dute, kontratatutako zerbitzuak eta langile ordezkapena modu eraginkorrean gauzatzeko. Postu bakoitzeko zereginak eta hau betetzen duen pertsona bakoitzaren lanbide-kategoria zehaztuko dira.

Normalean, lan-postua dela-eta, zerbitzuko erabiltzaileekin harremana duten langileek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza ziurtatu beharko dute. Irizpide hau ezinbestekoa izango da zereginak betetzearren.

Bestalde, langileek sarrera eta irteerak kontrolatzeko diren programa informatikoak erabiltzeko prestakuntza minimo bat izango dute. Gainera garbigunearen erabiltzaileak behar bezala informatzeko, erabilera erregulatzen duten ordenantzak ezagutuko ditu.

Langileek hondakinen kudeaketan, ingurumen eta garbigunetako funtzionamenduaren protokoloan etengabeko prestakuntza izango dute. Edozein langile zerbitzuan hasi baino lehen, adjudikaziodunak gutxinez 15 orduko prestakuntza eman beharko die. Horretaz gain, urtean 8 orduko formakuntza garbigunearen eginkizun eta garrantzi sozialaren inguruan eta kudeaketaren aspektu tekniko guztien inguruan ere. Kontratuaren edozein momentutan mankomunitateak adjudikaziodunari formakuntza irizpidea bete eta justifikatzea eska diezaioke.

Prestakuntza hori aprobetxamendu ziurtagiri batean frogatu beharko da, ordu kopurua, datak eta ikastaroa eman duen pertsona edo erakundea adierazita, kontratua sinatzen denetik, hiru hilabeteko epean, edo, hala badagokio, plantilan langile berria sartzen denetik epealdi Berean.

Lizitatzaileek prestakuntza plana adierazi eta eman beharreko prestakuntza laburki deskribatu beharko dute, prestakuntza horien arduradunak adieraziz. Irizpide subjetiboen atalean baloratuko da langileei eman beharreko etengabeko prestakuntzarako plan horien garapena.

Garbiguneko langilegoan edozein aldaketa egonda, adjudikaziodunak Mankomunitateari honen berri eman behar dio.

Zerbitzu honetako langile guztiek uniforme egokia eraman behar dute, baita norberaren garbitasun eta txukuntasun egokia mantendu ere. Jantzien zenbatekoa eta kalitatea ezarri beharko da, beti ere hitzarmen kolektiboari jarraiki.

Tolosako Mankomunitateak ez du inolako harreman juridiko, lan-harreman edo beste izaera bateko harremanik izango adjudikazioko langileekin kontratua irauten duen bitartea, ezta hau amaitzerakoan. Adjudikaziodunaren betebeharra izango da kontratu honetan sortutako kalte-ordain eta erantzunkizun guztiak.

Zorrozki beteko dira 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan arriskuen prebentzioari buruzkoa, 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, lan arriskuen prebentzioaren araudiaren erreforma, 39/1997 Errege DEkretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen araudia onartzen duena (604/2006, 337/2010 eta 899/2015 Errege Dekretuen aldaketak barne), 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, enpresa jardueren koordinazioaren arloan 31/1995 legearen 24. Artikulua garatzen duena, eta lanean segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duen gainerako legeria.

Greba edo enpresa gatazkarik izanez gero, mankomunitateak edo beste erakunde eskudun batzuek ezartzen dituzten gutxieneko zerbitzuak onartu eta gauzatu beharko ditu enpresak.

7.- KONTROL-SISTEMA

Proposatutako antolaketan, lizitatzaileek Mankomunitateak eskatutako datu guztiak garaiz eskeintzeko aukera ematen duten gailu bizkorrak aurreikusi beharko ditu, egindako lanak justifikatzeko eta zerbitzuaren ustiapenarekin eta kontratatutako zerbitzuarekin zerikusia duten kontrolak modu egokian egin ahal izateko. Gailu eta sistema hauek mankomunitateak dituenekin bateragarriak izango dira, nahiz informatikoak nahiz eta beste jatorri batekoak izan

Gainera, adjudikaziodunak momentu oro mankomunitatearekin komunikazio-sistema bizkor eta eraginkor bat (telefono mugikorra, posta elektronikoa, etab.) izan beharko du.

Kontratatutako zerbitzua mankomunitatearen ikuskapen eta zaintza etengabea izango du. Honek iruditzen zaizkion berraztertzeak egingo ditu edozein momentu eta lekutan. Mankomunitateak, egindako ikuskapenaren arabera, agindu eta argibide zehatzak eman ditzake, zeinak kontratistak bete beharko dituen.

Adjudikaziodunak hilabeteko lehen astean garbigunearen kudeaketa datuen (erabiltzaile zenbatekoa, erabiltzaile mota, erabiltzailearen ezaugarriak, irteera kantitateak, etab.) hilabeteko txosten oso eta zehaztua aurkeztu beharko du. Formatua, euskarria eta bidali beharreko informazioa adjudikaziodunak eta mankomunitateko zerbitzu teknikoak adostuko dute.

Hilabeteko txostenaren aurkezpena ezinbesteko irizpidea izango da mankomunitateak hilabete horretako hilabeteko ziurtapenaren ordainketa burutzeko.

Kontratista derrigortuta dago edozein momentutan mankomunitateak eskatzen dizkion dokumentuak erakustera, batez ere, gizarte-aseguru, lan-instripu, aseguru-poliza, instalazio eta materialekin zerikusiak dutenak. Orohar, mankomunitateari ezarri dakizkioken edozein erantzunkizun subsidiario sahistearren burutzen diren ekintza guztiak baimentzera.

Mankomunitateak esaktuz gero, adjudikazioduna derrigortuta dago zerbitzuarekin erlazionatuta dauden behar bezain txosten eta azterketak prestatzera.

8.- KONTRATISTARI GARBIGUNEKO INSTALAZIOA ETA EKIPAMENDUA LAGATZEA

Tolosako Mankomunitateak kontratistaren esku jarriko ditu garbiguneko instalazioak zerbitzua emateko.

Zerbitzua materakoan erabileragatik sor daitezkeen erantzunkizun guztiak kontratistarenak izango dira.

Kontratistak behrrezkoak iruditzen zaizkion aldaketa eta hobekuntza teknikoak bere kontura egin ditzake, aurrez Mankomunitatearen Zerbitzu Teknikoaren baimena izanez.

Kontratista derrigortuta dago lagatutako instalazio guztiak egoera ezin hobean mantentzera, bai garbiketa aldetik, bai mantenimendu aldetik. Mankomunitateko langileek aldizkako instalazioen kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera aztertuko dute garbiketa eta manteminendu lanen eraginkortasuna egiaztatzeko. Horretarako kontratistak ikuskapen-lanak

erreztu eta eskatzen dituzten kontrol frogak eman beharko dituzte. Ikuskapenaren ondorioz garbiketa eta mantenimendu lanak ez direla egiten edo modu ez egokian egiten direla ondorioztatzen bada, kontratistari hau betetzea edo hobetzea agindu diezaioke.

Kontratistak instalazioen oinarrizkoa mantenimendu lanengatik sortutako gastu guztiak ordainduko ditu.

Kontratua amaitzerakoan, kontratistak mankomunitateak laga dizkion instalazioak entregatzerakoan zeuden egoera berdinean bueltatu beharko ditu, beti ere egoera egokiaren ondorioz edo denbora pasatzearekin sortutako hondatzea normaltzat hartuz.

Kontratistak instalazioak modu egokian mantentzearen betebeharrak betetzea bermatzeko, kontratua edo honen luzapenak amaitu baino hiru (3) hilabete lehenago, mankomunitateari iruitzen zaizkion instalazioen esku-hartze teknikoak pairatuko ditu. Kontratistak ordainduko ditu azkeneko hiru hilabeteetan egoera ez egokiaren eta mantenimendu ez egokiaren ondorioz sortu diren kalteen konponketak eta berritzeak.

9.- ZERBITZUKO BESTE ASPEKTU BATZUK

Garbiguneko langileek aurki ditzaketen balio handiko objetuak mankomunitateko Zerbitzu Teknikoaren esku jarri beharko dira, jabeak direla frogatzen dutenei bueltatzeko.

Axolagabetasun edo arduragabekeri baten ondorioz objetu pertsonalak (giltzak, diru-zorroak, erlojuak, bitxiak, mota desberdinetako dokumentuak, etab.) nahigabe hustean edo zerbitzuaren esku edukiontzien barruan utzitako hondakinekin batera entregatzean, eta materialen biltegiratze instalazioei entregatu ez direla ziur jakinda, adjudikaziodunak ahal duen guztia egingo du objetu horien berreskuratze lanetan laguntzeko, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoak esaten duen bezala.

Garbigunearen langile ardunadunek etorkizuneko erabiltzaileek instalazioetako segurtasun arauak betetzea lortu beharko dute, mota guztietako istripuak sahiesteko behar diren neurriak hartuz.

10.- MEMORIA TEKNIKOA

Lizitatzaileek **MEMORIA TEKNIKOAN** zehaztuko dituzte, xehetasun guztiekin, antolaketa eta planifikazio proiektua, baliabide materialak eta langileak, eta, gutxienez, honako atal hauek garatuko dituzte:

- Antolaketa orokorra eta jarduteko protokoloa hondakinak jaso, identifikatu eta sailkatzeko. Berrerabilpena eta birziklatzea sustapena.
- Koordinazio plana edukiontzien bilketa eta garraio zerbitzuen enpresekin.
- Instalazioen garbiketa plana, jarduera protokoloa.
- Oinarrizko mantenuaren plana, jarduera protokoloa.
- Zerbitzua planifikatzea, aurretiko dimentsionamenduaren eta aurreikusitako errendimenduen arabera. Lizitatzaileak kontratuaren xede diren lanak egiteko izango dituen zuzeneko eta zeharkako langileak, ordezkapen plangintza, absentismoa eta lantaldearen oporrak. Bete beharreko eginkizunak eta lanbide kategoria. Formakuntza eta sentsibilizazio plana.
- Zerbitzua antolatzeko eta kontrolatzeko aurreikusitako sistemak.

Tolosan, 2021eko apirilaren 21ean